

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1569

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 11koa, Hezkuntzako sailburuordearena. Honen bidez 2014-2015 ikasturterako diru-laguntzak ematen zaizkie zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako eskolen titular diren tokiko korporazioei.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko azaroaren 11ko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, izapidetu diren espedienteak azertu ondoren, eta Eba-luazio-batzordeak, otsailaren 20an, egindako proposamena aurkeztu delarik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– 1.– Haur Eskolen titularrak diren udalei ematea I. eranskinean jasotako diru-laguntzak, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako udal eskolak mantentzeko kostuak finantzatzeko. Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da. Lehen ordainketa 2014ko azaroaren 11ko Aginduko 14. artikuluan aipatzen den hitzarmena izenpetu ondoren ordainduko da. Bigarren ordainketa apirilean ordainduko da. Hirugarren zatia diru-laguntzaren onuradunak 2014-2015 ikasturteko gastu eta sarreraren frogagiriak, udalaren idazkari edo kontu-hartzaileak ziurtatuak aurkeztu ostean ordainduko da.

2.– Ebazpen honen eranskinean aipatutako udalei honako hau jakinaraztea: ebazpena indarrean jartzen den egunetik hilabeteko epean izenpetuko dituzte hitzarmenak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta udal horiek. Izan ere, hitzarmenak zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako udal eskolak finkatzeko izango dira.

2. artikulua. – Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 11.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

2015eko apirilaren 8a, asteazkena

ERANSKINA
UDALAK

Lurraldea	Udala	Lehengo ordainketa	Bigarren ordainketa	Hirugarren ordainketa	Guztira ordainketa	
Araba	Valdegovía	2.773,06	12.279,54	12.279,54	27.332,14	
	Vitoria-Gasteiz	123.710,61	547.810,61	547.810,61	1.219.331,83	
		126.483,67	560.090,15	560.090,15	1.246.663,97	
Bizkaia	Barakaldo	30.713,15	136.002,82	136.002,82	302.718,79	
	Portugalete	28.098,43	124.424,39	124.424,39	276.947,21	
		58.811,58	260.427,21	260.427,21	579.666,00	
Gipuzkoa	Andoain	20.734,89	91.817,45	91.817,45	204.369,79	
	Aretxabaleta	26.536,00	117.505,70	117.505,70	261.547,40	
	Mondragon	44.740,99	198.120,34	198.120,34	440.981,67	
	Eskoriatza	14.519,32	64.293,93	64.293,93	143.107,18	
	Irun	23.081,11	102.206,92	102.206,92	227.494,95	
	Oiartzun	44.821,17	198.475,41	198.475,41	441.771,99	
	Ordizia	36.098,70	159.850,90	159.850,90	355.800,50	
	Pasaia	11.677,28	51.708,90	51.708,90	115.095,08	
	Usurbil	16.940,29	75.014,34	75.014,34	166.968,97	
			239.149,75	1.058.993,89	1.058.993,89	2.357.137,53
EAE		424.445,00	1.879.511,25	1.879.511,25	4.183.467,50	